


DESKRIBAPENA

Asfaltatutako ibilbidea, bizikletaz zein oinez egiteko prestatua. Ibilbideak Altamira zeharkatzen du eta landa atlantikoko lursail tipikoetatik zehar murgiltzen da, Darietazarra eta Miura bezalako baserri garrantzitsuenak pilatzen diren lekuetan. Paseo atsegina eta gomendagarri edonorentzat.



Malda metatua	180m
Denbora	1h 20min
Maila	Erraza
Distantzia	3,4km

3.1 DARIETAZARRA BASERRIA



Darietako kaskoa leku estrategikoa da. Bertatik Lezoko barruti guztia ikusten da, baina baita Donostia, Pasaiaiko portua, Errenteria eta Aiako harria ere. 1874an liberalek gotorleku bat eraiki zuten bertan. Gerra amaitutakoan, ordea, suntsitu egin zuten. Erdi Arokoa den Darietazarra baserriak aldiz zutik dirau.



3.2 MIURA BASERRIA



Miurako mugarría izen bereko baserriaren parean dago, bidez beste aldean. Señale bezala bi letra dauka, L (Lezo) eta O (Oiartzun), eta marra bat goiko aldean. Garai batean Hondarribia eta Oiartzunen arteko jurisdikzioak banatzen zituen mugarría zaharra ere ondoan dauka, zenbaki erromatar eta guzti.

3.3 BEGIRATOKIA



Lezon sagardiak ziren nonahi, eta dolare jatorrak zenbait etxe eta baserrian. Bertako portutik Ternuara abiatzen ziren baleazaleek ere sagardoz hornitzen zituzten beren ontziak. Aurrezurre sagarrondo sailak ikus daitezke, eta bere garaian sagardotegi izandako Bordatxo baserria.